

Hipoteken Estatistika 2026ko uztaila. Behin-behineko datuak.

Nafarroako etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 0,2 jaitsi da uztailan, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta batez besteko zenbatekoa % 1,4 jaitsi da

2026ko irailaren 28a


Etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 11,5 jaitsi da aurreko hilabetearekin alderatuta

ETXEBIZITZEN GAINEKO HIPOTEKAK

Kopurua. Nafarroako Foru Komunitateko jabetza-erregistroetan inskribatutako etxebizitzaren gaineko 455 hipoteka eratu dira uztailan, hau da, 2025eko hilabete berean baino % 0,2 gutxiago. Aurreko hilabetearekin alderatuta, hileko aldakuntza-tasa % 11,5 jaitsi da.

1. GRAFIKOA

Nafarroako etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua



Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak 2026ko urtarriletik aurrera



Mailegatutako kapitala, guztira. Etxebizitzaren gaineko hipoteketarako mailegatutako guztizko kapitala 70,4 milioi eurora iritsi da Nafarroan uztailan, eta, beraz, % 1,7ko jaitsiera erregistratu da 2025eko hilabete berarekin alderatuta.

1. TAULA

Nafarroako etxebizitzaren gaineko hipotekak. 2026ko uztaila.


	Guztira	Urteko metatua	Tasa (%)		
			Hilekoa	Urtekoa	Urtea hasi zenetik
Etxebizitza hipotekatuen kopurua	455	4.009	-11,5	-0,2	16,8
Mailegatutako kapitala (milaka eurotan)	70.446	616.811	-13,1	-1,7	24,4
Batez besteko zenbatekoa (eurotan)	154.826	154.366	-1,8	-1,4	6,4

Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

Batez besteko zenbatekoa. Nafarroan etxebizitzaren gainean eratutako hipoteken batez besteko zenbatekoa % 1,4 jaitsi da erreferentziazko hilabetearekin, aurreko urteko uztailarekin alderatuta, eta 154.826 eurora iritsi da.

2. GRAFIKOA

Nafarroako etxebizitzaren gaineko hipoteken batez besteko zenbatekoa (milaka eurotan)



Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak 2026ko uztarriletik aurrera

Espainia. Etxebizitzaren gainean eratutako hipoteken kopuruak % 3,5eko jaitsiera izan du uztailan, 2025eko aldi berarekin alderatuta. Hipoteka horien batez besteko zenbatekoak % 10,9ko igoera izan du, eta 180.785 eurora iritsi da.




FINKA KOPURU OSOAREN GAINEKO HIPOTEKAK

Kopurua. Guztira, jabetza-erregistroetan inskribatutako finken gaineko 531 hipoteka eratu dira Nafarroan erreferentziazko hilabetea (607 izan ziren aurreko urteko hilabete berean). Haietatik, 521 hiri-finkak dira, eta 10 landa-finkak. Hiri-finken artean, 455 etxebizitza, 6 orube eta 60 'bestelako hiri-finka' daude.

3. GRAFIKOA

Hipotekak guztira, finkaren izaeraren arabera. 2026ko uztaila.




Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

Mailegatutako kapitala, guztira. Foru Komunitatean eratutako hipoteka berrietarako mailegatutako kapitalaren guztizkoa % 1,4 jaitsi da 2025eko hilabete berarekin alderatuta, eta 126,0 milioi eurora iritsi da.

4. GRAFIKOA

Hipoteketarako mailegatutako kapitalaren banaketa, finkaren izaeraren arabera. 2026ko uztaila



Iturria: Nastat, INEren Hipoteken Estatistikan oinarrituta.
Behin-behineko datuak

Batez besteko zenbatekoa. Nafarroan uztailan eratutako hipoteka guztien batez besteko zenbatekoa 237.277 eurokoa izan da, hau da, 2025eko aldi berekoa baino % 12,7 handiagoa.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

[Hipoteken Estatistika. 2026ko uztaila.](#)



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00